



1. ALDIKO PROBLEMAK

1.- ASMAKIZUNA

- a) Ikaskide bati 2 zifrako zenbaki bat pentsatzea eskatzen diozu eta gero ondoko pausuak jarrai ditzan:
- Hartu hamarreko zifra eta biderkatu 2tik
 - Gehitu emaitza horri 13
 - Biderkatu aurreko emaitza 5-etik eta
 - Ateratako emaitzari, gehitu hasierako zenbakiaren bateko zifra.

“Orain esadazu azken emaitza eta hasieran pentsatu zenuen zenbakia asmatuko dizut”.

Azaldu zenbaki hori asmatzeko erabilitako prozedura.

- b) Sor ezazu 3 zifrako zenbaki bat asmatzeko prozeduraren bat.

2.- PATIOA BALDOSATZEN


Kepak eta Anek 16 baldosa handiko patio karratua margotu nahi dute; batzuk beltzez eta besteak zuriz. Kepak 4 lerroak ondorengo diseinuaren arabera margotu nahi ditu:

(z: zuria, b: beltza)

(z,z,z,b), (z,z,b,z), (b,z,z,b), (b,b,z,b)

Anek, ordea, 4 zutabeak ondorengo diseinuaren arabera margotu nahi ditu:

(b,b,b,z), (z,z,b,z), (z,z,z,b), (b,z,b,z).



Aurkituko al duzu diseinuren bat biak pozik izateko?
Azaldu nola egin duzun.



1. ALDIKO PROBLEMAK

3.- PAPILGRADISA (araknido txiki baten izena da latinez)

Aritmetika klasean, oilo batek, sei txakurrek eta zazpi papilgradisek guztira zenbat hanka dauzkaten galdetzen zaie ikasleei . Koldok 44 dio, Ionek 72, Anek 65 eta Edurnek 82.

- Nork du arrazoia? Zergatik?
- Edurnek 77 papilgradis bildu ditu eta 4ko eta 5eko kutxetan sartu nahi ditu. Zenbat kutxa erabili beharko du? Eman soluzio guztiak.

4.- ITURRIA

Zirkulu formako iturri baten inguruan lauki bat egin da, ondoko irudian bezala. Zein da DC aldearen luzera?

